



Munduko Rugby Txapelketa

FLASAK

EIBAREK ezin izan zuen garaipena lortu Sabadell taldearen aurka. 'Armeroek' bi penalti huts egin zituzten eta azkenean partidua hutsean amaitu zen. Bilbao Athleticcek galdu egin zuen azken uanean lidergoan dagoen Figueresen aurka (3-2).

JUVEN saskibaloit taldeak galdu egin zuen Gran Canaria-aren aurka, (74-85). Emaizta horren ondoren, donostiarrek lidergoa galdu egin zuten. Bestalde, lehen mailako beste euskal taldeak, Navarrak Xerox Vigoren kontra 48-77 galdu egin zuten.

INIGO IGARTUAK garaipen handia lortu zuen Kortezubiko ziklo kros proban herenegun. Bergarra lehen bitarik jarri zen karrerako lehen postuan eta ez zuen amaiera arte utzi. Paco Sala sailkatu zen bigarren postuan, ia bi minutura. Jose Mari Iurrebaso hirugarrena izan zen.

XEROX GETXOK denboraldiko hirugarren partidua irabazi zuen ohorezko mailara igo berri den Quesos Entrepinares taldearen aurka, 4-23ko emaitzarekin. Partidua uste bezain erraza izan zen getxotarrentzat, arierioa nahiko motel bait dabil. Gernikak ere bere partidua irabazi zuen Tecdinex Valenciaren kontra. Gernikarrek lan asko egin behar izan zuten, baina azkenean bi puntuak eskuratu zituzten (20-18).

ORDIZIA (28-12) eta Bera Berak (34-4) garaipena lortu zuten lehen mailako rugby txapelketako postgarren ihardunaldiko partiduan. Emaizta horren ondoren, bi euskal taldeak sailkapeneko lehen bi postuetan agertzen dira. Bere aldetik, Irunek (12-10) eta Gaztedik (20-16) galdu egin zuten.

CANDIDO ALARIOK irabazi zuen Sollubeko Igoerako VII edizioa, 38.09ko denborarekin. Palentinarrak marka berria lortu zuen, Nobel Lado bizkaitarrak zuen errekorra 54 segundutan hobetuz. Gomez del Real sailkatu zen bigarren postuan eta Nobel Lado hirugarren izan zen.

AITOR ZABALETA Espainiako Mendiko Txapelketako bigarren postua lortu zuen Alacanten, nahiz eta bertan bigarren postuan sailkatu Luis Martinezen atzetik. Bergarrak txapelaldun izateko esperantzak bazituen ere, orain denak galdu ditu Asturiasen egin beharreko proba bertan behera gelditu bait da.

HAMANN TXURI-URDINEK garaipena garrantzitsua lortu zuen Puigcerdaren aurka. Partidua 2-3ko emaitzarekin amaitu zen. Jachna poloniarra izan zen Txuri Urdineko jokalaririk aipagarriena, birritan golegile izan bait zen.

Australia finalerako sailkatu zen lehen zatiko joko bikainari esker

Zelandarrei aurrea hartu eta aspaldiko defentsarik sendoena egin zuen

Australiak garaipen handia lortu zuen New Zealanden aurka (16-6) eta Munduko Rugby Txapelketako finalera sailkatu zen. Wallabiesek izugarritzko jokoak egin zuten eta hasieratik jarri ziren aurrean markagailuan. Finalean Inglaterraren aurka jokatu dute Twickenhamen, larunbatean.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Bukatu ote da New Zealanden nagusitasuna? Igandean ikusitakoak hori baieztatzen du behintzat. Aurtengoa ez da Wallabiesek garaile ateratzen diren lehenengo aldia. Izan ere, ozeaniarren urteroko zitan australiarrek nahiko erraz nagusitu ziren. Gero, 15 egunera New Zealandekoek irabazi zuten, baina hiru puntuz bakarrik. Beraz, orduko kontutan hartuz eta Lansdowne Roaden ikusitakoak ez du ezustekorik gerta denik adierazten.

Jokoari dagokionez, aipatu behar da, nola ez, bi hamabostekoek erakutsi zuten prestakuntza fisiko paregabea. Lehen zatiko joko agresibo, azkar eta etengabeak ez zuen eragin handirik izan bigarren zatian, nahiz eta zenbait momentutan intentsitatea jaitsi. Ez genuen aspaldian, inoiz ez esateagatik, Australiak bigarren zatian egin zuen hil ala biziko defentsa bortitza ikusi. Benetan goi mailakoa eta denbora luzez ez ahazteko modukoa. Etengabe aritu ziren All Blacks aurrera eta atzera, ezker eta eskuin zuloa nondik egingo bilatuz. Aurrean ordea, burdinezko hesi iragan ezinarekin egin zuten topo.

LEHEN ZATI HANDIA Mundial honetako lehen zatirik handiena burutu zuten Wallabiesek, beren jokoari izugarritzko abiadura emanaz. Sei garren minuturako 4-0 aurreratu ziren David Campese hegalariai esker. Eskubialdetik sartu, baloia jaso eta bere taldekideen laguntzari erreparatu gabe, ezker izkinaraino joan zen zuzenean aurreratu zuten bere taldea hamahirugarren minutuan. Berrito Campese protagonista. Lynaghek ostikadaxo bat eman baloiari maisuki, Campesek jaso eta lehen bezalaxe aurrera indartsu. Bere burua galdutzat ikusi zuenean, Horani pase bikaina eman zion honek bigarren entseia lor zezan. Hori da hori jokalaria! Azken parte hartzea izango du selekzioarekin datorren larunbatean Twickenhamen, mundialeko finalean. Gero, Italian jarraituko du Mediolanum talde txapelalduean. Baina horrelako entseiuak erraz lor daitezke Farr-Jones, Lynagh, Egerton, Horan,

AUSTRALIA

- 1 Daly
- 2 Wearn
- 3 McKenzie
- 4 McCall
- 5 Eales
- 6 Poidevin
- 7 Ofanhegaue
- 8 Coker
- 9 Farr-Jones
- 10 Lynagh
- 11 Campese
- 12 Horan
- 13 Little
- 14 Egerton
- 15 Roebuck

16

6

NEW ZEALAND

- 1 McDowell
- 2 Fitzpatrick
- 3 Loe
- 4 I. Jones
- 5 G. Whetton
- 6 A. Whetton
- 7 Carter
- 8 Brooke
- 9 Bashop
- 10 Fox
- 11 Timu
- 12 McCahill
- 13 Innes
- 14 Kirwan
- 15 Crowley

Anotazioak:

Australia (13 + 3). 2 entseiu: Campese (6') eta Horan (35') 2 zigor kolpe: Lynagh (13', 63') Transformazio 1: Lynagh (35')

New Zealand (0 + 6). 2 zigor kolpe: Fox (42', 73')

Arbitroa: Jim Fleming (Eskozia)

Zelaia: Lansdowne Road (Dublin)



David Campesek entseiu bikaina lortu zuen partidua hasi orduko.

Australiak estreineko finala jokatu du larunbatean Twickenhamen, aurreneko Munduko Txapelketan Frantziak kanporatu zuelako finalerdietan.

Little, Campese eta Roebuck atzelariak elkarren ondoan daudenean.

NEW ZEALANDEK ERASO ETENGABEA Bigarren zatian New Zealandekoek partidua gal zezaketela ikusirik, aurrera egin zuten eta australiarren zelaian joka zuten denbora gehienean. Australiar aurrelariak, ordea, ez zuten zulerik uzteko prest. Izugarria izan zen bi aurrelarien arteko lehia. All Blacksak jo eta txokean, beraiek

dakiten bezain ongi, baina uste baino fruitu gutxiago lortuz. Baloia garbi irabazi eta atzekoentzat ireki. Askotan jokatu zuten John Kirwan, eskuineko hegalariaekin, honen indarra eta zuloa irekitzeko gaitasunaz baliatu nahian eta batzuetan lortu zuten. Gero ordea, jarraipenik ez.

Timu, ezkerreko hegalariaekin ere saiatu ziren behin baino gehiagotan. Hala ere, ez zuten emaitzarik lortu. Foxek zigor kolpe baten ondorioz lortu zituen lehen hiru puntuak. Berehala etorri zen, dena den, Australiaren erantzuna, Lynaghek beste hiru puntu lortzean. Nahi eta ezin, horixe izan zen New Zealandi gertatu zitzaiona. Aipagarria da, partiduan izandako joko gogorra eta agresiboa kontutan hartuta, zein zigor kolpe gutxi izan ziren. Ondorioz, ez zuten lan handirik izan bi joko zabaltzaileek (Fox eta Lynagh). Hitz batean, oso joko garbia ikusi zen.

LABURREAN

EDBERGek segitzen du ATP sailkapeneko lehen postuan

Stefan Edberg suediarrek Tenislari Profesionalen Sailkapeneko (ATP) lehen postuan jarraitzen du, 3.952 punturekin. Bigarren postuan Boris Becker alemaniarra agertzen da, 3.093 punturekin. Beckerrek munduko onena izateko aurrerapausu handia eman zuen Stockholmeko Tenis Torneoa irabaztean. Jim Courier, Michael Stich, Ivan Lendl, Guy Forget, Pete Sampras, Andre Agassi, Sergio Bruguera eta Karel Novacek osatzen dute lehen hamar sailkatuen zerrenda ●

ALAVESEK 33 milioi jasoko ditu futbola promozionatzeagatik

Alaves futbol taldea akordioa iritsi da Arabako Diputazioa eta Vital Kutxarekin. Akordio horrek 14 hilabeteko iraupena izango du eta klubak 33 milioi pezeta jasoko ditu. Alberto Ansola, Arabako diputatu nagusiak azaldu zuenez, akordioaren helburua «futbola sustatu, zabaldu eta hobetzea da, bai Gasteizen zein Araba guztian». Alavesek futbol eskolak irekiko ditu eta Araba guztian futbolaren aldeko promozioa egingo du ●

EUSKADIKO sei orduak otsailean 8an jokatu dira

Euskadiko Sei Orduak hurrengo urteko otsailaren 8an jokatu dira, probako antolatzaileek atzo adierazi zuten. XIV edizio honetarako, Organizaciones Deportivas El Diario Vasco maila goreneko ikuskizuna antolatzen ari da. Munduko txirritularirik onenak izango dira Anoetan eta horrez gain, beste mota batzuetako ekitaldiak ere ikusgai izango dira, aurreko urteetan gertatu bezala ●

ALLEMEK irabazi zuen Houstoneko Golf Torneoa

Fulton Allemek irabazi zuen Houstoneko Golf Torneoa, laugarren eta azken ihardunaldian 66 kolpe egin ondoren (guztira 273 kolpe) eta 800.000 dolar (85 milioi pezeta inguru) eskuratu zituen. Allemek gogor borrokatu behar izan zuen azken arte torneo irabazteko, Billy Ray Brown, Tom Kite eta Mike Hulbert kolpe bakarrera geratu bait ziren. Hegoafrikarrak hiru birdie lortu zituen azken lau zuloetan ●